

RENOKO UNIBERTSITATEKO CENTER FOR BASQUE STUDIES
SAILAK ESKAINTZEN DUEN ONLINE FORMAKUNTZAREN
ANALISIA: IKASLEEN IRITZIAN OINARRITUTAKO
LUZETARAKO AZTERKETA

Tesiaren egilea: Nere Amenabar Perurena

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Didaktika eta Eskola Antolakuntza

Tesi-zuzendaria: Arkaitz Lareki Arcos eta Jon Altuna Urdin

Tesiaren laburpena:

Ikerlan honetan Center for Basque Studies sailaren *online* ikastaroa ikasleen ikuspuntutik ikertu dugu, luzetarako azterketa bat eginez. Sail honek eskaintzen dituen kurtsoen antolaketa, kudeaketa eta aholkularitza lana unibertsitate bereko Independent Learning sailak egiten duenez, sail horren inguruko hainbat datu ere jaso ditu ikerketa honek.

Ikerlan hau zazpi atalez osatua dago. Lehenengo kapituluan, urrutiko hezkuntzatik *e-learning*-erako ibilbidea azalduko da. Hasteko, urrutiko hezkuntzari egin zaio tarte, definizio nagusiak eta historia orokorra azalduz. Jarraian, *e-learning*-aren inguruan aritu gara. Urrutiko hezkuntza motak eta dituen abantailak nahiz mugak ikusi dira. Kapitulu amaitezko, urrutiko irakaskuntza kudeatzeko dauden sistemen berri eman da.

“University of Nevada, Renoko Independent Learning eta Center for Basque Studies sailak” izenburua du 2. kapituluak. Unibertsitate bereko bi sail horien berri eman dugu. Lehenengo sailak antolatu eta kudeatzen ditu bigarrenak eskaintzen dituen *online* kurtso guztiak. Horrexegatik, kapitulu berean azaldu ditugu. Lehen sailaren zereginak, egitura administratiboa, gradu-programaren antolakuntza, helburuak, bertako ikasle eta irakasleak, eta etorkizunerako dituzten asmoak aztertu ditugu. Bigarren sailari (CBE) dagokionez, eman dituen lehen urratsak eta antolamenduaz gain, eskaintzen dituen *online* kurtsoen inguruan aritu gara bereziki.

Ikerketaren 3. kapituluan, beste zenbait erakundek eskaintzen dituzten *online* kurtsoen ebaluazio orokor bat egin dugu. Batetik, *e-learning*-a ebaluatzeko joera desberdinei egin diegu lekua, hala ikuspegi orokorretik nola ikuspegi partzialetik (formakuntza jardueraren eta materialen ebaluaketa egin da). Bestetik, *online* kurtsoen ebaluazio-tipologiari eskaini diegu beste atal bat, eta hezkuntza-ebaluazioaren definizioak eta ezaugarri nagusiak nahiz hezkuntza-ebaluazioaren tipologiak (funtzionaltasuna, normotipoa, tenporalizazioa eta eragileak) azaldu ditugu.

Gure ikerketaren antzeko beste lan batzuk aztertu ditugu 4. kapituluan: “*Online* ikastaroei buruzko ezagutza zientifikoa”. Aurkitu ditugun ikerketa esanguratsuenak honako irizpideen arabera sailkatu ditugu: ikasleen ikuspuntutik egindakoak, irakasleen ikuspuntutik egindakoak, luzetarakoak, ingurune birtualei buruzkoak eta edukiaren ingurukoak. Lehen atal nagusi batean, ikerketa horien berri eman dugu, ikerketaren nondik-norakoak azalduz. Lortu dituzten emaitza nagusiak azaldu ditugu bigarren atalean.

5. kapituluan ikerketa hau aurrera eramateko erabili ditugun diseinuaren eta metodologiaren berri eman dugu: ikerketaren helburu nagusiak, diseinua, subjektuak, datu-bilketarako erabilitako teknikak eta lanabesak, datu-bilketa beraren prozesua, lortutako datuen analisi eta prozesua, faseak eta tenporalizazioa, ikerketak izan ditzakeen mugak eta, azkenik, ikerketaren kalitate-irizpideak.

Ikerketa honetan lortu ditugun emaitza nagusiak azaldu ditugu 6. kapituluan. Lehen atalean, emaitzen irakurketa orokor bat egin dugu, eta jarraian aldagaika egindako irakurketa bat. Horretarako gure aldagai nagusiak hartu ditugu kontuan, eta banan-banan xehetu ditugu aldagai bakoitzaren inguruan lorturiko emaitzak. Azkenik, hirugarren atal batean, erantzun gehien bildu dituen galdera-sortari berriro heldu eta analisi hierarkikoak egin dira.

Ikerketatik atera ditugun ondorio eta eztabaida nagusiak azaltzeaz gain, etorkizunerako gure iritziz interesgarriak izan daitezkeen ikerketa-lerroak aipatu ditugu 7. eta azken kapituluan.